



AULA / GELA

Hitzaldia

Benan Oregi Iñurrieta

Zutik ozta-ozta nator

08 Iraila **18:00**
Septiembre

ZUTIK OZTA-OZTA NATOR

Benantzio Iñurrietak kartzelatik idatzitako gutunak

(1936-1940)

Kalebarreneko etxean ezagutu genituen txikitatik, kutxa batean ondo tolestu eta gordeta, gerra-denborako ehunka karta. Ez nion inoiz gutunei buruz berba bakar bat entzun gure amamari. Hala ere, berak utzi zigun altxor preziatuena zen. Amama hil eta gero izan zen aukera, unibertsitate garaian, kartak soseguz irakurtzeko. Larogeiko hamarkadan zen hori. Gehien-gehinak aitaitak kartzelatik etxera idatzitakoak ziren, baina bazeuden osaba Iñakik eta osaba Nikanorrek frontetik edo tabajadoreetatik idatzitakoak ere.

Guztira 257 gutun dira. Familia baten historiaren zati bat jasotzen dute, eta aldi berean euskal familia askoren historia berbera, kontatu izan dena batzuetan, eta ezkutuan gorde izan dena gehinetan. Horregatik dute balioa familia girotik haratago. Azken finean, historia unibertsala ere badira.

Gure aitaita fede handiko kristaua eta abertzalea zen, eta balio sendo batzuetan oinarrituta bizi izan zituen egokitu zitzaizkion bizipen guztiak, bere garaiko beste askok eta askok egin zuten bezala.

Bertozale amorratua zen Benantzio, eta euskaltzale goitik beherakoa; hori ez da kartzelako gutunetan atzematen, baina bai etxeratu ondoren idatzi eta jasotakoan.

Espetxean lau urte igarota etxera bertso kantari sartu zen eta eta bertso haien hasierako hitzek (“Zutik ostotan nator”) ematen diote izenburua lan honi.

ZUTIK OZTA-OZTA NATOR

“Zutik ostotan nator
ni kartzelatikan
azurrak agirian
da indarrik barikan.

Ez uste orregaitik
ni aldatzerikan
kastigatuagatik
gogor artirikan
burua oraindik dakart
lengo lepotikan.

Lenbiziko agurra
sendi maiteari:
guraso, ta emaste
seme-alaberi.

Besarkada goxo bat
emanik danori
otoitz egin dayogun
gaur goiko Jaunari
Bisirik etorri naiz
eskerrak Berari”

BENANTZIO IÑURRIETA AGUIRREGOMOZCORTA
(Soraluze 1894-1964)

AULA / GELA

Aula / Gela es un programa de difusión cultural promovido por el Photomuseum y patrocinado por el Ayuntamiento de Zarautz.

Se divide en cuatro bloques temáticos:

Actualidad, Cinematografía, Historia y Literatura.

Aula / Gela Photomuseum-ek sustatu eta Zarauzko Udalak babestutako kulturaren difusiorako programa bat da.

Lau alor tematikoetan banatzen da:

Gaur eguneko gaiak, Zinematografia, Historia eta Literatura.



ZARAUZKO UDALA



Photomuseum